

Donostiako MICE sektoreak bere burua berrasmatu du

- Donostiako MICE sektoreak lan eta lan jarraitu du bere jarduera egokitu eta suspertzeko COVID19ak eragindako egoeraren aurrean. Kongresuen eta ekitaldien sektoreari lotutako enpresek bere burua berrasmatu dute hainbat aukera birtualen bidez, eta dagozkien osasun-neurriekin prestatzen ari dira, bilkurak egiten hasteko gobernuaren gidalerroek baimena ematean.
- Donostia Turismoko Kongresu eta Ekitaldien lantaldeak gelditu gabe jarraitzen du lanean sektoreko enpresei aholkularitza emateko eta haiek babesteko; gainera, antolatzaileek hirian ekitaldiak egiteko interesari eusteko ere lanean ari da.



Donostiako MICE sektoreak **aktibo jarraitzen** du pandemia gorabehera; bere burua berrasmatu du eta egoera berrira egokitu da, online kongresuak eginez, streaming plataformak sortuz, edo e-conference, webinar, zuzeneko klaseak eta showcooking-ak eginez, besteak beste. Gainera, bilkuretako egoitzak higiene- eta distantzia-protokoloak aktibatzen ari dira, **segurtasuna bermatzeko** aurrez aurreko ekitaldiei berriz ekitean.

Cristina Lagé Turismo zinegotziak kongresuen turismoaren balioa nabarmendu du. “MICE jarduerak ekarpen handia egiten du kuantitatiboki, baita lurraldeko ekonomiaren motor moduan ere, turismogunearen urtarokotasunarekin apurtzen laguntzen baitu. Horregatik, **MICE turismoaren aldeko apustua** egiten dugu gure Gida Planean, eta Kongresu eta Ekitaldien lantaldeak lanean jarraitu du sektoreko enpresak babesteko eta haiei aholkatzeko egoera zail eta aldakor baten aurrean. Era berean, MICE sektoreko antolatzaileekin kontaktuan jarraitu dugu atzeratu diren ekitaldiak gerora Donostian egin daitezen, eta **etorkizunean beste ekitaldi batzuk ere hirian bertan egiteko** interesari piztuta eusteko”.

Era berean, Donostia Turismoak bere web-orriaren eta sare sozialen bitartez MICE sektorearen bazkide diren Donostiako establezimenduen ekimenak ere zabaltu ditu, eta sektorearentzat interesgarria izan daitekeen informazioa eta dokumentazioa eguneratu ditu.

- [MICE sektorea ez dago geldirik: COVID 19aren ondoren informazioko interesa MICE sektorearentzat](#)
- [MICEk bere burua berrasmatu du](#)

Hauk dira Donostiako MICEk sortutako ekimen berrietako batzuk:


- **Kursaal Batzar Jauregia**
 - **Ekitaldia: Club de Creativos**
- **Basque Culinary Center**
 - **Ekitaldia: Gastronomika Live**
- **Ficoba**
 - **Ekitaldia: Bioterra Fest**
- **Hagoos: Basque Live Streaming Event**
- **Victoria Eugenia Antzokia**
- **Lankor: e- konferentziak egiteko plataforma**
- **Tisa: on-line plataforma**
- **Astoria 7 SafeHotel**

Kursaal Batzar Jauregia



Kursaala lan eta lan dabil lehenbailehen bera jardunera itzultzeko bilkuretarako eta kultur ekitaldietarako protokolo espezializatuekin. Osasun-segurtasuna bermatuko da etengabeko desinfekzio eta garbiketaren bitartez eta ekitaldi mota bakoitzari dagokion distantzia-protokoloa aplikatuko zaio. [Informazio gehiago](#)

Club de Creativos C Egunak Facebooken



Club de Creativos elkartearen 2020ko C Egunak eraldatu egin dira. **Ekainaren 11n hasiko dira, Facebook bidezko estreinaldi batekin**, eta bertan ezagutaraziko dira Espainiako Sormenaren XXI. urtekariko piezak. Ekitaldia **urriaren 8tik 19ra** bitartean amaituko da, **Donostian**, orduan izango baita garaikurren eta Sormenaren Espainiako Sari Nazional Nagusiaren banaketa.

Informazio gehiago: <https://www.clubdecreativos.com/>

Basque Culinary Center



Basque Culinary Center bere ekitaldiak eta ikastaroak online formatura egokitzen ari da:

Online Ekitaldi Gastronomikoak

BBCk bere ekitaldi guztiak eredu digitalera egokitu ditu: nazioarteko erreferenteak diren chef-ekin egindako online konferentziak, zuzeneko eskolak, enpresentzako txostenak, showcooking-ak eta kongresuak aldibereko itzulpen-sistemekin.

Doako webinar-ak / Online ikastaro trinkoak (ordainduta)

BBCk doako Webinarrak eta profesionalentzako ikastaro trinkoen eskaintza zabal bat ezagutarazi ditu; funtsean, ezagutza zabaltzeko eta gastronomia hainbat ikuspuntutatik esploratzeko espazio bat. [Informazio gehiago](#)

#GastronomikaLive

San Sebastián Gastronomika-Euskadi Basque Country proiektu digitalak (maiatzaren 5-29) 56 hizlari, 41 webinar eta 45 herrialdek egindako 23.000 erreserba izan ditu guztira. Gastronomika Liven eskainitako hitzaldiak ikusteko edo beren inguruko informazioa jasotzeko sartu hemen [San Sebastian Gastronomika-Euskadi Basque Country web-orriko 'albisteen' atala](#).

Aurrez aurreko Gastronomika azoka urriaren 4tik 7ra bitarte egingo da.
<https://www.sansebastiangastronomika.com/>

Ficoba




FICOPA erakustazoka lanean ari da bere instalazioetan lehenbailehen egiteko ekitaldiak eta bilkurak; lan hori erakustazokaren espazioen araberakoa da, adibidez, pabiloiek distantziak gordetzeko bermeak ematen dituzte. Era berean, osasun-segurtasuna bermatuko da desinfekzio eta garbiketa etengabea eginez, eta inguruan dauden parking plazak gutxituko dira urruntze-urriak betetzeko. [Informazio gehiago](#)

Bioterra Fest Instagramen



Ekainaren 5tik 7ra Bioterra Fest egin zen, formatu berrian. Produktu ekologikoen, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren Euskadiko azokak egokitu egin du Ficoban egitea aurreikusten zuen 17. edizioa eta [Instagrameko topaketa birtualen](#) bidez egin du. Aurrez aurreko azoka urrian egingo da.

Victoria Eugenia Antzokia



Victoria Eugenia Antzokiak bere jarduera eszenikoari berrekingo dio, besaulkiak elkarren artean aldenuz eta gomendatutako osasun-neurriak hartu ondoren. Informazio gehiago:
www.victoriaeugenia.eus

Hagoos: Basque Live Streaming Event



Hagoos-ek pizgarri eta ekitaldien agentziei zuzendutako zerbitzu berria eskaintzen du, MICE ekitaldiak streaming bidez egin ahal izateko “Euskadin egongo bazina bezala”. COVID19a dela eta aurrez aurreko ekitaldiak egin ezin diren uneotan, nazio mailako eta nazioarteko enpresek Euskadiren esentzia streaming bidez gerturatu ahal izatea da helburua.

“Euskal gastronomiaren zaporeak”, “euskal kultura eta tradizioak”, “itsasoa eta arrantzaleak” edo antzeko beste esperientzia batzuk; horietan, besteak beste, erakusketak, erakustaldiak, bisita birtualak eta abar eskaintzen dituzte. Horiek dira formula honen adibide batzuk, lanaren eta aisialdiaren konbinazio bat izanik, % 100 made in Euskadi esperientzia paregabeak, betiere. Informazio gehiago: hagoos.com

Lankor: e- konferentziak egiteko plataforma



Kongresu eta ekitaldien antolatzaile den Lankor enpresak bideoak jasotzeko plataforma bat jarri du martxan. Plataforma horrek e-konferentziak egiteko aukera eskaintzen du. Plataforma erabili da Mondragon Unibertsitateak antolatutako CIRP (Conference On Surface Integrity) kongresua egiteko. Kongresuan 19 herrialde baino gehiagotako 150 adituk hartu dute parte. Informazio gehiago: lankor.eus

TISA: on-line plataforma



TISA kongresuen, ekitaldien eta bilkuren antolakuntzan espezializatutako enpresak lanean eta mota guztietako bilerak egiteko on-line plataformak sustatzen jarraitzen du. Urrutiko aldebereko interpretazio zerbitzuak eskaintzen ditu, ekitaldietako behar linguistikoei erantzuteko, eta bere azafaten lantalde profesionalak osasun-protokolo berriak betetzen laguntzen diete erakundeei. Informazio gehiago: tisa.es

Astoria 7 Safehotel



Astoria 7 Hotelak programa higieniko-sanitario bat garatu du lasaitasun eta konfiantzazko ingurunea bermatzeko. [Informazio gehiago](#)